

# Topalekua

102 zk. 2020ko otsaila

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA  
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

% 1,46ko IGOERA, 2019. URTEAREN ALDEAN

## Gizarte Kontseiluak 428 milioi euroko aurrekontua onartu du EHU/UPVrentzat 2020rako

**Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU/UPV) Gizarte Kontseiluak, joan den abenduaren 20an Bilbon elkarturik, EHU/UPVren 2020ko aurrekontua onartu zuen: 428 milioi euro guztira. Hau da, % 1,46 gehiago aurreko ekitaldian baino.**

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak erabaki du aurrekontua onartzea, aztertu ostean UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2019ko abenduaren 12an onartutako proiektua eta Ekonomia eta Finantza Batzordeak proiektu hari buruz egindako txostena. Txosten horrek beritasun nagusiak aztertzen ditu, eta analisi ekonomiko-finantzario luze-zabala egiten du, kapituluak, programak eta gastu-unitateak kontuan izanda.


- 328,8 milioi euro **langileen gastuetara** (I. kapitulua), guztizkoaren % 76,8 eta 2019an baino % 1,41 gehiago;
- 74,05 milioi euro **gastu korranteetara** (II. kapitulua), guztizkoaren % 17,4 eta iaz baino % 0,34 gehiago;
- 19,6 milioi euro **inbertsioetara** (IV. kapitulua), aurrekontuaren % 6,68 eta 2019ko aurrekontuan baino % 4,5 gehiago.
- Finantza-gastuak, transferentziak, diru-laguntzak eta EHU/UPVren Gizarte Kontseiluaren aurrekontua dira gainerakoak (haietarako zuzkidura 450.000 eurokoa da).

Azkenik, Bilbon egindako saio hartan bertan, Gizarte Kontseiluak baimena eman zuen unibertsitateak eskatutako hainbat aurrekontu-aldaketa egiteko, eta irakasleen ordainsarien osagarri gehigarriak esleitu zituen.

*Achucarro Basque Center for Neuroscience* fundazioiko arduradunek 2018-2021 aldirako bigarren plan estrategikoa aurkeztu zioten Gizarte Kontseiluari, baita lehendabiziko plan estrategikokoaren emaitzak ere. Fundazioa 2012an sortu zuten *Ikerbasque* eta EHU/UPVk, eta gaur egun Leioako Teknologia Parkean dago.

Fundazio horrek 90 pertsona dauzka kontratatuturik edo loturik, eta haietatik % 58 Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira. Horretaz gainera, Europako Batzordeak sustatu eta emaniko *HR Excellence in Research* egiaztapena dauka.

### 2008-2020 ARTEKO AURREKONTUAREN BILAKERA



Kapituluz kapitulu egindako analisi horretan, ikusten da Euskal Herriko Unibertsitateak honako partida hauek bideratuko dituela 2020an:

**ADECCO ENPLEGU TXOSTENA. 22. EDIZIOA**

LAUGARREN URTEZ JARRAIAN, ETA MADRILGO AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ETA KATALUNIAREN ATZETIK

# Euskadik hirugarren posizioan jarraitzen du enplegu-eskaintzaren banaketa nazionaleko zerrendan

**Eskaintzen % 10,52rekin, Euskal Autonomia Erkidegoak laugarren urtez jarraian hirugarren postua lortu du enplegu-eskaintzaren banaketa nazionaleko zerrendan; aurretik ditu Madril (% 26,97) eta Katalunia (% 24,57). Hiru autonomia-erkidego horiek jarraitzen dute lanpostuak sortzeko gaitasun handiena izaten, Adeccoren azken enplegu-txostenaren arabera.**

Adeccoren enplegu txostenaren 22. edizioak 2018ko datuak biltzen ditu, eta xehetasunez azaltzen du zer bilakaera izan duen enplegu-eskaintzak Espainian azken urtean eta zein izan diren enpresen eta hautagaien kezka nagusiak talentua eta enplegua bilatzeko orduan, hurrenez hurren.

Txosten horretan, eta enpleguaren munduan duen lidergo-posizioa baliatuz, Adeccok adierazi du ezinbestekoa dela "premia eguneratzea politika publikoak efiziente eta efikazago bilakatzeko, hezkuntza-mundua errespetatzea -bereziki unibertsitatea- eta prestakuntza-programak martxan ipintzea, ezagutza teknikoak edo espezifikokoak ez ezik bestelako alderdi transbertsalak ere kontuan hartuz, guztia ere pertsonak karrera profesionaletara bideratzeko, trebakuntza, enplegua, langabezia eta autoenplegua aldizka tartekatuz".

Hori guztia dela eta, Adeccok adierazi du beharrezkoa dela enplegu-politika aktibo berriak eta modernoak martxan ipintzea, sinpleagoak, zuzenagoak eta efikazagoak. Azken edizio honetan, Adeccok dio beharrezkoak direla "prestakuntza-eredu eta -sistema berriak, hona ekarri gaituztenak ez baititugu behar ez gaur egun, ez etorkizunera begira".


**Zailtasunak hainbat plaza huts betetzeko**

Adeccok gogorarazi duenez, "orain gutxira arte laidoztutako lanbide heziketak Espainiako enplegu-eskaintzaren ia % 42,4 biltzen du, eta unibertsitatea, berriz, % 38,5era jaitsi da". Hala, merkatuan hamar enpresatik zortzik diote zailtasunak izan dituztela hainbat plaza huts betetzeko garaian 2018ko ekitaldian (20 puntu gehiago aurreko urtean baino).


**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE BANAKETA**




**BANAKETA SEKTORIALA**



**ENPLEGU-ESKANTZA GEHIEN JASOTZEN DITUZTEN LANPOSTUAK**



**UNIBERTSITATE-TITULUDUNENTZAKO ENPLEGU-ESKANTZAK**



Espainiako enplegu-eskaintza % 15,76 igo da azken ekitaldian; igoera horri esker, sei ekitaldian jarraian izan da hazkundea, 2013an markatutako inflexio-puntutik abiatuta.

Kontuan hartzen baldin badugu probintzia bakoitzeko enplegu-eskaintza (guztira Espainiako 50 probintziak gehi Ceuta eta Melilla neurtzen dira), EAEko hiru lurraldeak ageri dira Espainian enplegu gehien sortzen dutenen artean: Bizkaia (% 4,7), hirugarren posizioan; Gipuzkoa (% 3,7), laugarren tokian; eta Araba (% 2,1), zortzigarren tokian.

Bizkaia Euskal Autonomia Erkidegoko eskariaren % 44,93 biltzen du, eta autonomia-erkidegoko enplegu-eskaintza gehien sortzen dituen lurraldea da. Edonola ere, bi pun-

tuko murrizketa izan du, beste bi lurraldeen mesedetan. Gipuzkoa % 34,3ko ekarpena egitetik % 35,35ekoa egitera igaro da, eta Araba, berriz, puntu bat igo da (% 19,72).

Sektorekako banaketari dagokionez, eta nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko motor nagusia izan, beste industria-jarduera batzuek pisua galdu dute berriz ere, eta enplegu-eskaintzaren % 14,93 hartzen dute (ehuneko -0,8 puntu); horrekin, bi ekitaldiz jarraian batu dira murrizketak. Ostalaritza eta turismoa ipini dira bigarren tokian (% 9,32), postu hori sendotuz, eta gero eta gertuago dago industriatik. Merkataritzak ere gero eta distantzia laburragoa ageri du, eta autonomia-erkidegoko eskaintzen % 9,20 biltzen ditu.

## ADECCO ENPLEGU TXOSTENA. 22. EDIZIOA

Adeccoren txostenaren arabera, Euskadin 2018an gehien eskatutako lanpostuak hauek izan dira: agente komertzialak (% 3,24), langileak (% 2,99), mantentze-lanetako teknikariak (% 2,76), langile espezializatuak (% 2,46) eta biltegiko langileak (% 2,33).

**Ingeniaritzak eta enpresa-administrazioa eta -zuzendaritza, gehien eskatuak**

Honako unibertsitate-titulazio hauek eskuratu zituzten enplegu-eskaintza gehien 2018an, ordena honetan: Industria Ingeniaritza (% 3,94), Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza (% 3,22), Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikoa (% 1,67), Ingeniaritza Mekanikoa (% 1,51) eta Ingeniaritza Informatikoa (% 1,36).

Beste karrera batzuen artean, Merkataritza eta Marketinak eskaintzen %0,73 jaso zuen; Enpresa Administrazioa eta Zuzenbidea, %0,66; Erizaintzak, %0,57; Medikuntza eta Biome-

dikuntzak, %0,51; Ostalaritza eta Turismoak, %0,50; Psikologia eta Pedagogiak, %0,33; Ekonomiak, %0,28; Arkitekturak, Zuzenbidea eta Publizitateak, %0,24; eta Hezkuntza eta Pedagogiak, berriz, %0,21.

**Eskatutako prestakuntza-maila eta lanbide-kategoriak**

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko enplegu-eskaintzen % 39,21ean unibertsitate-titulazioa eskatu zuten; % 31,60an, goi-mailako heziketa-zikloak; % 17,80an, erdi-mailako heziketa-zikloak; % 5,57an, DBH eta Eskola Graduak, eta % 4,86an, Batxilergoa, BBB eta/edo UBI. Masterra eta/edo graduondokoa eskatu zituzten lan-eskaintzak %0,95 izan ziren.

Lanbide-kategoriaren arabera, Euskadin eskatutako lanpostuen % 41,78 teknikariak izan ziren, % 38,30 enplegatutak, % 16,80 erdi-mailako arduradunak eta % 3,13 zuzendariak.

**UNIBERTSITATE-TITULUDUNENTZAKO ENPLEGU-ESKANTZAK**

Unibertsitate-titulazioa	Euskadi 2018		Euskadi 2017		Espainia 2018	
	Enplegu-eskaintza guztien gaineko %	Unibertsitate-tituludunentzako enplegu-eskaintzen gaineko %	Enplegu-eskaintza guztien gaineko %	Unibertsitate-tituludunentzako enplegu-eskaintzen gaineko %	Enplegu-eskaintza guztien gaineko %	Unibertsitate-tituludunentzako enplegu-eskaintzen gaineko %
Industria-ingeniaritza	3,94	10,06	4,29	9,78	1,52	3,95
Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza	3,22	8,21	3,26	7,43	3,46	9,00
Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikoa	1,67	4,26	1,78	4,06	0,68	1,77
Ingeniaritza Mekanikoa	1,51	3,86	1,85	4,21	0,75	1,94
Ingeniaritza Informatikoa	1,36	3,46	1,45	3,31	1,57	4,09
Industria Antolaketako Ingeniaritza	0,83	2,11	0,85	1,94	0,23	0,60
Ingeniaritza Elektrikoa	0,78	1,99	0,85	1,94	0,43	1,12
Merkataritza eta Marketina	0,73	1,87	0,76	1,73	0,86	2,24
Enpresa Administrazioa eta Zuzenbidea	0,66	1,69	0,83	1,88	0,96	2,49
Erizaintza	0,57	1,45	0,31	0,71	0,76	1,97
Telekomunikazioetako Ingeniaritza	0,52	1,33	0,69	1,56	0,60	1,56
Medikuntza eta Biomedikuntza	0,51	1,31	0,35	0,81	0,80	2,09
Ostalaritza eta Turismoa	0,50	1,29	0,31	0,71	0,55	1,42
Lanaren Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak	0,44	1,13	0,56	1,28	0,97	2,52
Ingeniaritza Elektromekanikoa	0,39	1,01	0,46	1,05	0,38	0,98
Psikologia eta Pedagogia	0,33	0,84	0,31	0,70	0,47	1,23
Industria Diseinuko Ingeniaritza	0,29	0,74	0,50	1,13	0,20	0,53
Filologia, Linguistika eta Literatura	0,28	0,72	0,20	0,45	0,32	0,84
Ingeniaritza Aeronautikoa / Aeroespaziala	0,28	0,70	0,29	0,66	0,15	0,38
Ingeniaritza Zibila	0,28	0,70	0,12	0,26	0,17	0,45
Ekonomia	0,28	0,70	0,43	0,98	0,70	1,83
Arkitektura	0,24	0,60	0,25	0,56	0,34	0,88
Publizitatea eta Harreman Publikoak	0,24	0,60	0,10	0,23	0,17	0,44
Zuzenbidea	0,24	0,60	0,28	0,64	0,46	1,20
Hezkuntza eta Pedagogia	0,21	0,52	0,29	0,66	0,30	0,78
Unibertsitate-titulazioa espezifikatu gabe	16,49	42,06	19,98	45,55	17,08	44,39
Bestelako titulazioak	2,42	6,17	2,53	5,76	3,59	9,33

# UPV/EHU da Euskadiko erakunde zientifiko nagusia


**Euskal Herriko Unibertsitateak 3.500 argitalpen baino gehiago izan ditu 2018an Scopus eta WoS agerkarietan, eta autonomia-erkidegoko erakunde zientifikoetako buru da, Ikerbasquek argitaratutako Euskadiko 2019ko Zientzia Txostenaren arabera.**

Scopus aldizkari zientifikoetako laburpen eta aipuetako datu bibliografikoen datu-base bat da, eta Web Of Science (WoS) atariak, berriz, edozer jakintza-diziplinatako argitalpen zientifiko nagusiak biltzen ditu.

Ekoiaren hori zentroz zentro aztertuz gero, argi eta garbi ikusten da EHU/UPVk Euskadiko argitalpenen % 56,42tan parte hartzen duela, Scopusek emandako datuen arabera. Atzetik ditu Osakidetza, Tecnalia, IK4 eta Donostia International Physics Center (DIPC). Saillapen horretan, Deustuko Unibertsitatea seigarren tokian ageri da, eta Mondragon Unibertsitatea, berriz, hamahirugarrenean.


Zentro eta aliantza teknologiko horiek sektoreka hartuz gero, unibertsitatea gailentzen da 4.000 argitalpen baino gehiagorekin eta % 65 baino gehiagoko partaidetzarekin Euskadiko

## EHU/UPV-k EUSKADIKO PRODUKZIO ZIENTIFIKOAREN % 56an PARTE HARTZEN DU



Iturria: Scopus eta WoS

## AUTONOMIA ERKIDEGOEN I+G-an INBERTITZEN DUTEN BPGd-aren EHUNEKOA



Iturria: Eustat

produkzio zientifikoan, batez ere EHU/UPVren eraginagatik, Ikerbasque txosten horrek dioenez.

Autonomia-erkidegoko barne-produktu gordinarekiko I+Gan egindako inbertsio datuak kontuan hartzen baldin badira, ikusiko dugu Euskadi izan zela 2017an gastuaren buru, barne-produktu gordinaren % 1,88 bideratuta (ondoren izan zituen Nafarroa, Madril eta Katalunia) Hain zuzen ere, azken hiru autonomia-erkidego horiek eta Euskadik bakarrik gaitzen dute Espainiako batezbestekoa (% 1,2).


Balio absolututan, Euskadiko I+Gko gastua 1.300 milioi euro baino gehiago izan zen 2017an, eta areagotu egin zuen aurreko urteko hazkundera. Horretaz gainera, Eustatek 2018rako prestatutako behin-behineko azken datuak kontuan izanik (% 4ko hazkundera 2017ko datuen aldean), I+Gko gastua ia % 10 areagotu zen 2016 eta 2018 bitartean.

## Giza kapital handia goi-mailako ikasketekin

Behoko grafikoan ikus daitekeen moduan, Euskadin dago 25 eta 65 urteko goi-mailako ikasketak egindako biztanle gehien (adin-tarte horretako biztanleen % 49,56). Lehendabiziko hamar postuetan, atzetik ditu Madril, Nafarroa, Asturias, Katalunia, Kantabria, Errioxa, Aragoi, Galizia, eta Gaztela eta Leon.

Euskadiko batezbestekoa nabarmendu egiten da Espainiakoaren aldean (% 37,25 baita). Hartara, Euskadik azken hamarkadan gainerako autonomia-erkidegoen aldean aurkeztutako lidergoari eusten dio, % 50etik hurbil dagoen kopuru batekin.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAGO GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN HERRITARREN EHUNEKO HANDIENA



Iturria: Ikerbasque